



Pio Etxeberria, 1926 urte inguruan.

Galdera: *Pentsu-dendak noiz zabaldu zituen bere atea ezagutzen al duzu? Eta nor ireki zuen denda? Familiakoek izan al duzue beti bere ardura?*

Erantzuna: Pentsu-denda nere aita zenak, Pio Etxeberria Urbietak, ireki zuen, 1.920. urtea baino lehen, baina data zehatzik ez daukat ematerik. Horren aurretik, aitaren aldetiko aitona, Victoriano Etxeberriak, janari-denda bat zuen, gure etxetik gertu; "El Obrador" gozotegia aurkitzen zen tokian, hain zuzen.

Urte batzuk beranduago, nere aita Pio gure etxea eraiki zuen, bertan pentsu-denda ezarririk. Gure ama zen Romana Olaziregirekin ezkondu zen, bertan bizitzera jarriaz eta lau seme-alaba izan zituzten: Miren (ezkon berrian eta familiarik gabe, gazterik hila), Pio (Zaragoza eta Atletico Aviacioneko futbolista izana; hau ere gazterik hila), Ixiar (1.978. urtean hila) eta ni, Josebe, denetan bizirik den bakarra.

Haseran etxea pisu bakarrekoa zen eta 1.926. urtean aitak eraikuntza handitu zuen, etxeari beste pisu bat emanaz.

G : *Garai honetakoak dira zuen dendari buruz ezagutzen ditugun lehenengo albiste idatziak. Izan ere, 1.924, 1925, 1.926 eta 1.927. urteko "Renteria" aldizkarian zuen etxeko publizitate iragarkiak ageri dira eta, antza denez, salmenta eta mugimendu handiko negozioa zen.*

E : Egia esan, bezero ugari zituen gure dendak, Irundik hasita, Ernani eta Donostiaraino, baina bereziki Erreterria

PENTSU-DENDATIK SAGARDOTEGIRA

ETXE BATEN MEMORIAK

Juan Miguel Lacunza

1.998 eko Urtarrilan, soinu handirik atera gabe, era diskreto batean, bere atea itxi zituen "Pionekoen" pentsu-dendak; izan ere, deitura horretaz ezagutu baititugu familia horretakoak. Aurten jakin dugu, leku horretan, pentsu-dendari erreleboa hartuaz, sagardotegi bat ireki-ko dutela.

Gauzak etengabe aldatzen ari diren honetan, ez dugu gertakari hau pasatzen utzi nahi eta, omen gisa, gure oroimenera dakargu Erreterriarekin hain loturik dauden denda, etxea eta familia honen historia laburra. Datu bila, pentsu-dendaren azken titularra izan den Josebe Etxeberriarengana jo dugu eta honek, bere alaba Mirentxurekin batera, adeikortasunez hartzen gaitu, gure galderei erantzunez.

eta Oiartzungo baserrietatik hiltzen zitzaizkigun bezero gehienak.

Gure aita gizon saiatua zen eta negozioari abiada handia ezarri zion. Helburu horretan, baserriarrek egindako eskerak, bereziki haziak eta pentsua, beraien etxeetara banatzen hasi zen, horretarako gurdia eta zaldia erabiliaz. Denborak aurrera egin ala, modernizatu beharrak partiketarako furgoneta batez egiten hastea eragin zuen.

G : *Lan guzti honetan, zuen aitak bakarrik aritzen al zen ala kanpokoen laguntzarik zuen? Nola hasi zineten lan horietan laguntzen?*

E : Haseran, gurasoek bakarrik egiten zuten lan; amak despaxuaren ardura zuzena hartzen zuela eta aita partiketa lanez enkargatzen zela; baina gero eta, batez ere, gerraren ondorioz, aitak ihes egin behar izan zuenean, laguntzaile gisa, Patxiku Mujika, "Dantxari" ezizenez ezagutua, aritu zen gurekin lanean. Gizon honek Santa Klara kalean gogoratzen dugun azken ukulua, behi eta zaldi haziendarekin, izan zuen. Beheko hilerria eta Santa Klara kalearen artean zegoen belardira botatzen zituen larrera bere abereak, erreteriar askok gogoan dugun bezala. Eta gaur egun, gizon horren deitura toki horrekin estuki loturik da. Erreteriarrontzat "Patxikuren kanpa" baita leku horren izena.

Momentu horietan hasi ginen gu dendan laguntzen. Gero, ezkondu nintzenez, nere senarra zen Lucio Iriarte baserriarako enkarguen banaketa egiten hasi zen, bere furgonetaz baliatuz. Bere lanetik etorritakoan ekiten zion lan



Pio Etxebarria, Josebe bere alabarekin.

honi eta azkeneko momenturarte, 1.979ean hil zen arte, ekin ere.

Senarra hil ondoren, alabaren laguntzarekin jarraitu dugu negozioarekin. Baina azken urteetan Santa Klara kalean izandako zirkulazio arazoak, norantza bakarreko zirkulazioa ezarri zutenetik, batez ere, eta lan mota honetarako behar den indar fisikoa dela eta, denda itxi beharrean aurkitu gara.

G : *Zuen aita zenak lotura politiko estuak izan zituen. Nolakoak? Eta ondorioak ekarri al zizkion horrelako militantziak? Lan berean jarraitzerik izan al zuen gerra garaia iritsi zenean?*

E : Gaztetandik, Eusko Alderdi Jeltzailearen militantea egin zen eta errepublika garaian herriko zinegotzia hautatua izan zen legegaldi desberdinetan.

Gerraren ondorioz, herritik aldegin behar izan zuen eta izkutatu beharrean aurkitu zen. (Mirenen lengusua den Agustinek gehitzen dizkigu ondoren datozen datoak) Bizkaiko Ea-n eta Nafarroako Donesteben eman zuen Pio Etxebarriak gorderik iragan beharreko denbora guztia. Baina egoerak ez zezakeen denbora luzean iraun eta, senide baten bidez, Carlos Itxaso-Asu alkatearengana jo zuten, honek Pioren itzulerarako hermea eman zezan. Honela egin zuen garaiko alkate jaunak eta, ezarri zioten izuna ordaindu ondoren, etxeratzeko moduan aurkitu zen Pio; eta, baita, negozioa bere osotasunera berreskuratzeko ere.

G : *Zuen etxean izandako aktibitate nagusiaz hitzegin dugu, baina ez da hori bertan eman den bakarra; bestelakoak ere izan dira zuen etxean, eskolarenak adibidez. Esaiguzu zerbait horretaz.*

E : Ahizpa zaharrenak, Mirenek, magisteritza ikasi zuen eta Etxe Berrietan aurkitzen zen Luis Vives akademian lanean hasi zen, klaseak emanez. Laister, gure etxean jarri zen klaseak ematen, Orereta kaletik sarrera duen gela bat erabiliz. Bertaratzen ziren ikasleek etxeko terraza erabiltzen zuten jolasleku bezala. Beste ahizpak, Ixiarrek, "Profesor Mercantil" ikasketak eginak zituen eta laguntzen hasi zitzaion.

Miren hil ondoren, Errenteriako Orereta Ikastolak, Bittor Idiazabal, D. José Aranberri eta abarren eskutik sortu zenean, 1.963. urtean, gela horretan eman zituen lehen urratsak, Arantxa Idiazabal lehen andereino zela. Gela horrek badu, beraz, bere tokia gure herriaren historia txikian. Ixiar, nere ahizpak, zerikusia izan zuen ikastolaren lehen momentu horietan eta bere ahalegin guztiak jarri zituen ikastola sortzen laguntzeko.

Etxebarriatarren etxea. Egungo egoera.



G : Elkarrizketa aurrera doa, Josebe, eta bada beste kontutxo bat zuen etxearekin loturik doana eta jakin mina sortu diguna. Entzun dugunez, zuen etxean gordetzen omen da Aste santuko prozesioetan ateratzen den Jesus hilaren "pasoa"? Nola da hori? Nola iritsi zen zuen etxera eta noiztik da bertan? Jabego pribatukoa al da?

E : Esan behar da, gure etxean ez zela Jesus hilaren irudirik gordetzen, eleiz nagusian aurkitzen den irudi hori kalera-tzeko erabiltzen den sarkofagoa baizik. "Paso" horretan erabiltzen den irudia San Migel aldarearen behealdean, aldareako mahaiaren azpian, ezarriko dagoena da.

Prozesioetarako irudi hori bertan zegoen kutxatik ateratzen zen eta gure etxean gordetzen genuen sarkofagoan sartzen zen. Horretarako, bezperan edo egun batzuk lehenago, eleizara eramateaz arduratzen ginen. Horretaz gain, gure ardura ziren "Paso" horren hornidura eta horretarako erabiltzen ziren maingidurak eta abarrak garbitzea. Ardura hau Etxeberriatarren familiakoa zen, gurea eta izeba Triniaren sendikoarena. Familia desberdinen artean banaturik zeuden aldare desberdinetako zaintza lanak. Bidegaintarrek, adibidez, "Doloretako" aldarearen zaintzaren ardura zuten.

Duela urte batzuk, sarkofago hori eleizara eraman zen, han zegoen zaharra ordezkaturik. Egun, beraz, S.Migel aldarearen behealdean dagoen sarkofagoa gure etxean gorde izan duguna da.

Ez dakit, bestetik, nolaz iritsi zen gure etxera sarkofago hori. Agian, donazio bat izan zitekeen. (Agustin lehengusuak beste-la pentsatzen du, eta bi familien artean, Pio eta Trini anai-arrebarenak alegia, egindako oparia edo donazioa dela uste du).



Uztaiak etxeko hormetan.

G : Badugu beste azken galdera bat, elkarrizketarekin amaitzeko. Zuen aitaren izen bereko, Pio Etxeberria, militar ospetsu bat badu Errenteriak.

1.930. urtean hil zen militar hau Jacako Teniente Koronela izatera iritsi zen, Ceutako Erregularren III. Tabor-eko komandantea izan ondoren. Itxura batean, ekintza militar garrantzitsuetan parte hartutakoa zen eta kondekorazio ugari jasotakoa. Militar honi Errenteriako udalak omenaldi bat egin zion, afari herrikoi bat eskeiniaz. Ikusten denez, pertsonaia ilustrea izan zen. Zer nolako lotura du zuen familiarekin? Ba al du batere?

E : Urrutiko ahaidetasuna zuen gure familiarekin, baina ez dakit, egia esan, ahaidetasunaren maila zenbaterainokoa zen, aitoren lehengusu txikia edo..., baina ez da gure familia gertukoa. (Agustin lehengusuaren memoria onak datu berri bat eskeintzen digu, Antontxu Sainz zenaren familiakoa zela, gehituaz).

"Renteria" aldizkarian agertutako iragarkia 1925.

Eta horrelako oroimenak gogoratuz eta artikuluan ageri diren argazkiak begiratzuz eta komentatuz amaiera ematen diogu elkarrizketa honi, Josebe eta bere alaba Mireni eskerrak ematen dizkiegun bitartean. Eskerrak ere bai, Joseberen lehengusu den Agustini, oroimen arrigarritzuz zenbat datuz aberastu duelako elkarrizketa.

Pionekoan, Etxeberriatarrena ez den sagardotegia zabaltzen denean, gogora etorriko zaigu Errenteriako etxe honen historia apala eta gertua.